



FORU AGINDUA

Giza Baliabideen Zerbitzua
Esp. zk.203 / 2023 (10571)

Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren absentziaren eta absentismoaren kudeaketa plana aldatzeari

Abenduaren 27ko 1060/2022 Errege Dekretuak, zeinaren bidez aldatzen baita uztailaren 18ko 625/2014 Errege Dekretua (dekretu horrek aldi baterako ezintasun prozesuen zenbait kudeaketa eta kontrol aspektu arautzen ditu haien iraupenaren lehen hirurehun eta hirurogeita bost egunetan), zenbait erreforma egin ditu aldi baterako ezintasun egoeren eta haiei dagozkien prestazioen kudeaketako izapideak arintzeko.

Errege dekretu horrek egindako aldaketa nagusia hau da: 2023ko apirilaren 1etik aurrera, kendu egingo da langileari entregatu beharra enpresari bideratutako baja, berrespen eta alta medikoko parte medikoaren paperezko bigarren kopia, eta, hala, saihestu egingo da langileak eman behar izatea partea enpresari, erakunde kudeatzaileari edo mutualitateari.

Izan ere, egungo bitarteko elektronikoen aukera ematen dute administrazioak zuzenean jakinarazteko enpresari parte medikoak egin direla, eta enpresak administrazioari behar dituen datu gehigarriak emateko, aldi baterako ezintasun egoera kudeatzeko eta kontrolatzeko, langileak alde aurretik partea aurkeztu beharrik izan gabe.

Ondorioz, beharrezkoa da aldatzea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren absentziaren eta absentismoaren kudeaketa plana, zeina azaroaren 11ko 433/2021 Foru Aginduaren bidez onetsi baitzen, prozedura berria jarduera protokoloan txertatzeko aldi baterako ezintasunaren ondoriozko absentzien kasuetarako.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri ziren. Bestalde, ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zen. Bi dekretu horietan ezarritakoarekin bat etorritik, hau



XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Azaroaren 11ko 433/2021 Foru Aginduaren bidez onetsitako Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko absentziaren eta absentismoaren kudeaketa planaren 4.1.A apartatua aldatzea. Honela idatzita geratzen da:

"4.- ALDI BATERAKO EZINTASUN KASUETAN JARDUTEKO PROTOKOLOAK

4.1 Ohiko gaixotasunengatiko aldi baterako ezintasunak kudeatzea:

A. Jasotzea eta izapidetzea.

2023ko apirilaren 1etik aurrera, GSINek eta enpresak telematikoki jakinaraziko diote elkarri aldi baterako ezintasunaren parte medikoa. Horrek esan nahi du langileak jada ez duela zertan aurkeztu kasuan kasuko parte enpresan.

Jarduketa prozedura hori aldatzen duen araudia abenduaren 27ko 1060/2022 Errege Dekretua da, zeinaren bidez aldatzen baita uztailaren 18ko 625/2014 Errege Dekretua (dekretu horrek aldi baterako ezintasun prozesuen zenbait kudeaketa eta kontrol aspektu arautzen ditu haien iraupenaren lehen hirurohun eta hirurogeita bost egunetan).

Kudeaketa hobe izan dadin, baja eta alta berehala jakinarazi beharko zaizkio lantokiari (zerbitzuaren buruari/hierarkian gainetik dagoen hurrenari), bai eta zerbitzu medikoari ere, helbide elektroniko honetan: prevención@araba.eus

Gasteiz.

Cristina González Calvar

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu,
Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru
Administrazioaren Saileko diputatua
Segunda Teniente de Diputado General y Diputada
de Fomento del Empleo, Comercio y Turismo y de
Administración Foral

Adolfo Lander Vera

Funtzio Publikoko zuzendaria
Director de Función Pública